Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko abenduaren 26a, osteguna — 248 — Jueves, a 26 de diciembre de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ALEGIAKO UDALA

*Iragarkia*

Jendaurreko informazio epea iragan denez batere erreklamazio edo oharpenik gabe, behin betikotzat jo dira Udal Batzarrak 2024eko urriaren 23an hartutako Ordenantza Fiskalak aldatzeko hasierako erabakiak, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

*Udalerriko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako zenbait ahalmen erregulatzen dituen ordenantza fiskala.*

### I. XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Udal honek Ordenantza Fiskal honetako koefizienteak eta indizeak finkatu ditu, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 13/1989 Foru Arauko 10 eta 11 artikuluetan aurreikusitako ahalmenak erabiliz (ikus azken artikulu honen idazketa berria eman duen Premiazko Zerga Neurriei buruzko apirilaren 5eko 7/1991 Foru Araua, eta Toki Entitateen Zerga sistema aldatzeko, martxoaren 19ko, 4/2003 Foru Arauko III kapituluko bost atalak jasotzen dituen aldaketak).

### II. GUTXIENEKO KUOTEN PONDERAZIOA

*2. artikulua.*

Udalerri horretan zergapetutako jardueratarako zerga honen Tarifetan Foru Diputazio honek ezarri dituen gutxieneko kuotak 1. eranskinean azaltzen den koefizientearen arabera gehituko dira.

*3. artikulua.*

Udalerriaren barnean Zerga honek zergapetutako jarduerak gauzatzen diren lokalen kokapena ponderatzeko, aurreko 2. artikuluaren arabera gehituko kuotei 2. eranskinean adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontuan hartuz.

*4. artikulua.*

Gehikuntza koefizientea eta kokapen indizea, ordenantza honen 2 eta 3 artikuluetan hurrenez hurren finkatzen direnak, ez zaizkie aplikatuko kuota probintzialei eta bereziei, ezta Foru Errekarguari ere.

*5. artikulua.*

Aipatu 3. artikuluan esandako indizeak aplikatzeko, udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatu egiten diren 2. eranskinean erlazionatutako kategorien arabera.

## AYUNTAMIENTO DE ALEGIA

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública sin que se haya producido reclamación ni observación alguna, se han elevado a firmes y definitivos los acuerdos iniciales adoptados por el Pleno Municipal en sesión celebrada el 23 de octubre de 2024, sobre modificación de Ordenanzas Fiscales, con efectos desde el 1 de enero de 2025.

*Ordenanza fiscal reguladora de determinadas facultades para la exacción del impuesto sobre actividades económicas en el municipio.*

### I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.º*

Este Ayuntamiento, haciendo uso de las facultades previstas en los artículos 10 y 11 de la Norma Foral 13/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Actividades Económicas, el último precepto citado en la redacción dada por la Norma Foral 7/1991, de 5 de abril, de Medidas Fiscales Urgentes, fija los coeficientes e índices contenidos en esta Ordenanza Fiscal y que ha sido modificado por el apartado cinco del capítulo III de la Norma Foral 4/2003, de 19 de marzo, de reforma del sistema de Tributación Local.

### II. PONDERACIÓN DE CUOTAS MÍNIMAS

*Artículo 2.º*

Las cuotas mínimas fijadas por la Diputación Foral en las tarifas de este Impuesto para las actividades gravadas en este término municipal se incrementarán en el coeficiente que se indica en el anexo 1.

*Artículo 3.º*

A efectos de ponderar la situación física de los locales o establecimientos donde se ejerzan las actividades gravadas por este Impuesto en el término municipal, se aplicará a las cuotas incrementadas conforme al artículo 2 anterior los índices de la escala que se indican en el anexo 2 en función de la categoría de la vía pública.

*Artículo 4.º*

El coeficiente de incremento y el índice de situación fijados respectivamente en los artículos 2 y 3 de esta Ordenanza no se aplicarán a las cuotas provinciales y especiales ni al Recargo Foral.

*Artículo 5.º*

Para la aplicación de los índices que hace referencia el artículo 3 anterior se clasifican las calles, plazas o barrios del término municipal por el orden de categorías que se relacionan en el anexo 2.

EK\CV GAO-I-2024-09166

III. TRIBUTUZKO ZERGA

*6. artikulua.*

Zerga honen tributuzko kuota Tarifek finkatzen dituzten gutxieneko kuotez egongo da osatua, erantsiz koefizientea eta Ordenantza honetako 2 eta 3 artikuluen eta, kasua balitz, Foru Errekarguaren arabera dagokion indizea.

IV. SALBUESPENAK

*7. artikulua.*

Honako hauek salbuesten dira zergatik:

Zerga hau arautzen duen Foru Arauko 5 artikulua bere osotasunean aplikatuko da, une bakoitzean indarrean dagoen idazketaren arabera.

IV. GESTIO ARAUAK

*8. artikulua.*

1. Zerga honen gestio, likidazio, bilketa eta ikuskapen ahalmenak eskuordetu ahal izango dira Gipuzkoako Foru Diputazioarengan, Udal Batzarrak aldez aurretik erabakitako eran, hitzarmena sinatuz ondorioak izan behar dituen urtearen hasiera baino lehen.

2. Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira sinatu ondorengo lehen seihilekoaren barruan. Era berean argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean bertan hitzarmen horien salaketa.

3. Lehen zenbakian erabakitakoa horrela bada ere, Foru Aldundiarenak izango dira han adierazitako ahalmenak, kuota probintzial eta bereziei dagokienean.

V. AZKEN XEDAPENA

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta horren 1 eta 2 eranskinetako koefizienteak, indizeak eta bide publikoen kategoriak onartu zituen Udalbatzak, 2024eko urriaren 23an egindako batzarrean, eta 2025eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta erregelamenduaren arabera aldatzea edo derogatzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuko da.

I. ERANSKINA

— Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: 1,965.

II. ERANSKINA

Udalerriko bide publikoen sailkapena.

— Kategoria: Bakarra.

— Indizea: 1.

Hau guztia, Gipuzkoako Ogasun Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.4 artikuluak agindutakoa betez argitaratzen da, guztion jakinerako eta artikulu horretan aurreikusten diren gainerako ondorioetarako.

Foru Arau horren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa, kuota, tarifa eta Ordenantzetan egindako finkatze eta aldaketak onartzen dituzten erabaki horien kontra interesatuek tartejarri ahal izango dute errekurtso kontentzioso-administratiboa Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabetetako epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Alegia, 2024ko abenduaren 13a.—Regina Sorarrain Lasa, alkatea. (9166)

III. CUOTA TRIBUTARIA

*Artículo 6.º*

La cuota tributaria de este Impuesto estará formada por las cuotas mínimas que fijen las tarifas, incrementadas con el coeficiente y el índice que proceda según los artículos 2 y 3 de esta Ordenanza y del Recargo Foral en su caso.

IV. EXENCIONES

*Artículo 7.º*

Están exentos del Impuesto:

Se aplicará íntegramente lo dispuesto en el artículo 5 de la Norma Foral reguladora de este impuesto, según la redacción que resulte vigente en cada momento.

IV. NORMAS DE GESTIÓN

*Artículo 8.º*

1. Las facultades de gestión, liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto podrán delegarse en la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los términos, contenido y alcance que el Ayuntamiento Pleno determine, suscribiendo al efecto el oportuno convenio antes del comienzo del año en que haya de surtir efectos.

2. Tales acuerdos y convenios se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa dentro del primer semestre siguiente a su formalización. Asimismo se publicará en el mismo medio oficial la denuncia de los citados convenios.

3. No obstante lo dispuesto en el número 1 de este artículo corresponderá en todo caso a la Diputación Foral las facultades en él expresadas por lo que se refiere a las cuotas provinciales y especiales.

V. DISPOSICIÓN FINAL

La Ordenanza Fiscal modificada transcrita, los coeficientes, índices y categorías de vías públicas contenidos en los anexos 1 y 2 que forman parte de la misma, fueron aprobados por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 23 de octubre de 2024 y entrará en vigor el día 1 de enero de 2025, continuándose aplicando en tanto no se acuerde su modificación o derogación en forma reglamentaria.

ANEXO 1

— Coeficiente único de incremento de las cuotas mínimas fijadas: 1,965.

ANEXO 2

Clasificación de las vías públicas del término municipal.

— Categoría: Única.

— Índice: 1.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 16.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el expresado precepto.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.1 de la citada Norma Foral, contra los expresados acuerdos aprobatorios de fijación de modificación de tipos, cuotas, tarifas y Ordenanzas los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la correspondiente Sala del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente hábil al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Alegia, a 13 de diciembre de 2024.—La alcadesa, Regina Sorarrain Lasa. (9166)

EK\CV GAO-I-2024-09166